

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AIARAKO UDALA

Aiarako Udaleko alkateak 2023ko abuztuaren 30ean emandako dekretuaren laburpena, zeinaren bidez egiten baita Aiarako Udalak eskaintzen ez dituen musika eta dantza jardueretara joateko laguntzak emateko 2023. urterako deialdia

BDNS(Identif.): 714534.

Bat etorri Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalen dago ikusgai: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/714534>).

Lehenengoa. Onuradunak

Diruz lagunduko den jarduera hasi aurretik, gutxienez sei hilabetez segidan Aiarako udalerrian errolatuta dauden eta oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsonak.

Dena den, adingabeen kasuan, laguntzaren eskatzailea diruz lagunduko den jardueran parte hartzen duen adingabearen aita, ama edo legezko tutorea izango da.

Bigarrena. Xedea

Deialdi honen xedea da Aiaran errolatuta dauden pertsonen musika eta dantza jardueretan izena emateagatik sortutako gastuak ordaintzea, baldin eta jarduera horiek ez badira Aiarako udalerrian eskaintzen eta EAEko udalen zentroetan eskaintzen badira.

2022ko irailetik 2023ko ekainera arte egindako jarduerak lagunduko dira diruz.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Dirulaguntza hauek emateko oinarri arautzaileak Alkatearen abuztuaren 30eko 477/2023 Dekretuaren bidez onetsi ziren eta ALHAOn argitaratu ziren.

Bestalde, Aiarako Udalak eskaintzen ez dituen musika eta dantza jardueretara joateko laguntzak ematea arautzen duen ordenantzan daude jasota dirulaguntza horiek emateko oinarri arautzaileak. Ordenantza hori Aiarako Udalak onetsi zuen eta ALHAOn argitaratu zen, 42. zenbakian, 2020ko apirilaren 15ean.

Oinarriak eta eskaera eredia Aiarako Udalaren web orrian daude eskuragarri: www.aiarako-udala.eus.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdi honen diru zuzkidura 6.000,00 euro da.

Hau izango da, gehienez, dirulaguntzaren zenbatekoa: Udalak edo haren mendeko erakundeak udalerrin horretan errolatutakoei aplikatzen dizkien tarifen eta onuradunari aplikatzen dizkion tarifen arteko aldearen ehuneko 100.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

Hogeita hamar egun, oinarriak ALHAOn argitaratzen direnetik aurrera.

Seigarrena. Beste datu batzuk

Eskaera eta eranskin guztiak beteta eta adierazitako agiriak aurkeztu behar dira.

Arespalditza, 2023ko abuztuaren 31

Alkatea

PRUDENCIO OTEGUI ECHEVARRIA